

UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2020ko IRAILAREN 28an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño (Hezkuntza Zinegotzia)
- Iñigo Magunagoikoetxea (Euskara Zinegotzia)
- Jose Morales (Allende Salazar ikastetxea)
- Itxaso Garteizurrekoa (San Fidel Ikastola)
- Josu Ojinaga (Seber Altube Ikastola)
- Gema Astigarraga (Barrutia Ikastetxea)
- Goizalde Gezuraga (Barrutialde Institutua)
- Maribi Galarza (Gernika Institutua)
- Ager Cuadrado (Mertzedek ikastetxea)

Idazkaria: Hizkuntza Normalizaziorako Teknikaria (Bittor Zarrabeitia)

Ezin etorria zuritu dutenak:

- CEPA-HHI zentroa

Hasiera ordua: 10:00

Amaiera ordua: 11:30.

Aldez aurretik, informazioa eskaini da pasa den ikasturteko Eskolaz kanpoko diru laguntza deialdiari buruz. Burutzeke geratu zen pandemiaren ondorioz atzeratu izanagatik eta orain lege aldetik tramitaziorako dauden oztopoak ikusita (antza, orain arteko tramitazioak ez du balio eta beste batzuk bete behar dira: Plenoan onartu, Boletinean iragarri, epea Boletinean agertzen denetik zenbatu,...), ezinezkoa egiten da aurten deialdia burutzea. Beraz, Udalak deialdi hori bertan behera utzi eta ikasturte berrirako deialdian konpentsatzeko bidea hartu behar du, 2021eko aurrekontuaren bizkar egiteko.

(Nahiz eta aurreko aipamen hori agertu aktan, zuzenketa etorri da gero eta, aktatik kanpo, argitu behar da hurrengo mezua bidali zaiela zentro guztiei irailaren 30ean:

“Egun on, adiskideok:

Gauzak egun batetik bestera alda daitezke eta, kasu honetan, onerako.

*Astlehenean Eskola Kontseiluan esan genizuen aurreko ikasturteko **Eskolaz Kanpoko ekintzetarako diru laguntza deialdia (2019-2020)**, pendiente zegoena, bertan behera utzi beharra zegoela, dena delakoagatik gauzak atzeratu direlako eta tramitaziorako dauden lege oztopoekin ezin zelako urte amaierarako gauzatu.*

*Bada, orain zuzendu egin digute hori, **posible da tramitazioa arintzea**. Hori bai, deialdian banatu daitekeen diru kopurua, zoritxarrez, 15.000 eurokoa izango da (2018-2019 ikasturtean 29.000 euro izan ziren).*



Beraz, Udaletxean aurrera joko dugu tramitazioarekin eta deialdiaren berri izango duzue.

*Honez gero, batzuek aurkeztu duzue (Allende Salazar, CEPA-HHI zentroa, San Fidel eta Seber Altube). Gauzak gehiago arintzeko, eskertuko genizueke **AURKEZTU EZ DUZUENOK AURKEZTEA ATXIKITA DAGOEN ARAUDI ZIRRIBORROAREN ARABERA:***

- *Barrutia Ikastetxea*
- *Mertzede ikastetxea*
- *Gernika Institutua*
- *Barrutialde Institutua*

Zalantzarik badaukazue, deitu erreparo barik telefonoz (9462702025).

Barkatu eragozpenak eta ondo izan!...”)

1.- DIRU LAGUNTZA DEIALDIAK BATERATZEA

Batzordeko idazkariak aurkeztu du gaia. Banatu den araudi-zirriborroaren bitartez lortu nahi den helburua da deialdi bakar batean bateratzea orain arte bereizten izan diren Eskolaz Kanpoko jardueretakoa eta Hizkuntza Normalkuntza planetakoa.

Hausnarketa egin da eta ikusi da onuragarria dela bateratze hori, bai zentroentzat eta baita Udalarentzat, deialdi biak dutelako helburu berbera (euskararen normalizazioa eta sustapena) eta saihestu egiten delako bikoizketa tramitazioan, papeleoa, zuriketean,...

Eskaera egin zaie batzordekideei zirriborroa aztertzeko, ekarpenak egiteko eta, zalantzak izatekotan, galdetzeko. **Finkatu egin da hurrengo batzar bat urriaren 21erako (11:00etan)**, aipatu araudi zirriborroa aztertu eta behin-betikoa adosteko.

2.- ESKOLAZ KANPOKO EKINTZA KOMUNAK FINKATZEA (ZEINTZUK ETA ZELAN BURUTU)

Aztertu egin dira eskolaz kanpoko jarduerak banan-banan eta, egoera berri honetara egokitu beharra izanik, honako **ERABAKIAK HARTU DIRA:**

A).- **Dantzari eguna.**- Ikastaroekin batzuek jarraitu egingo dute eta beste batzuek ez. Dantzari Eguna bera ez ospatzea erabaki da, momentuz, eta zentro bakoitzak barrura begirako ospakizunak burutzea erabaki da.



B).- **Antzerki jardunaldiak.**- Tailerrekin jarraitu egingo dute zentroetan, baina antzerki jardunaldiak eurak ez egitea erabaki da. Zentroetako batzuk ez dute antzerki jarduera garatuko.

C).- **Idazlan Koadernoak.**- Liburuak argitaratu egingo dira eta horretarako tramite guztiak landuko dira zentroetan, orain arteko sistema berberarekin. Irakurketa ekitaldiena erabakitzeke geratu da, baina lehenetsi egiten da, momentuz, irakurketa ekitaldiak zentro bakoitzak garatzea barrura begira.

D).- **Ikasle etorkinen errefortzua.**- Indarrean dauden protokoloak eraginda eta jarduerak orain arte izan dituen barietateak kontuan hartuta (16 urtetik beherakoak dira ikasleak, neurri handi batean eskola bera da erantzule, zentro desberdinetakoak biltzen izan dira beste zentro batean,...) haxe erabaki da: zentro bakoitzak eratuko ditu zerrendak eta Euskara Zerbitzura igorriko dituzte; ondoren, AEK-ri pasatuko zaizkio eta berau jarriko da harremanetan zentroekin aztertzeko bideragarri den. AEK-k fakturatuko dio zentro bakoitzari eta zentroak diru laguntza deialdian sartuko du kontzeptu hori.

E).- **Eusluderrak egitasmoa.**- Azken urteetan Gernika Institutuan eta Barrutialde Institutuan garatu izan den egitasmoa dugu, baina egoera berri honekin ez da ikusten bideragarri. Beraz, erabaki da ikasturte honetan ez garatzea. Egiteke dago iragan ikasturteko ekintza zibila.

3.- UDALETIK ESKOLA MUNDURAKO DAUDEN KANPAINA ETA ZERBITZUEN BERRI EMATEA

Puntu honen barruan, honakoak aztertu dira:

a).- **Gurasoei/aittite-amumei/zaintzaileei euskalduntze ikastaroak.**- Urtero egiten den eskaintza da. Haxe erabaki da: zentroetara bidaltzen den fitxa paperean ez bidaltzea, emailez baino, eta zentro bakoitzak daukan plataformatik gurasoei helaraztea. Interesatuak fitxa bete eta zentroetan bildu ondoren, Euskara Zerbitzura bideratuko dira; Udalak AEK-ri bideratuko dizkio eta hau arduratuko da interesatuekin harremanetan jarri eta taldeak eratzeko.

b).- **GAZTEZULOren “BEITU” argitalpen digitala.**- Zentroen balorazioa aintzat hartuta, erabaki da ikasturte honetan ez garatzea ekimen hau.

c).- **HIK HASI aldizkariaren harpidetza.**- Gogoratu egiten da ekimen hau zentroetan matrikulatu berriak diren haurren gurasoei begirakoa dela.

Zentroetako ordezkariak positibotzat jotzen dute ekimen hau, eskaera egiten duten gurasoek interesagatik betetzen dutelako fitxa. Beraz, erabaki da aldizkariaren harpidetzarekin jarraitzea, orain arteko sistema berberarekin (Euskara Zerbitzutik gutun



eredua bidali zentroetara eta zentro bakoitzak zabaltzea bere plataformatik dagokien gurasoei; azkenik, zentro bakoitzak bildutako fitxak Euskara Zerbitzura bideratu).

d).- Euskara Zine Aretotara.- Kontuan izanik bizi dugun egoera berezia eta protokoloak, zentro bakoitzak erabakiko du garatzea zentroan bertan. Kasuren batean zine-toki bat eratu dute zentroan bertan ekintza burutu ahal izateko.

e).- Hamaika orduko irakurraldia”.- Erabakitzeke dago eta, Berbalaguneko ekimena izanik, AEK-rekin egingo da kontsulta.

Honi buruzko hausnarketa egin da eta hauxe erabaki da: Berbalagun egitasmoaren helburua 16 urtetik gorakoei begirako ekimena izanik eta 11 orduko irakurraldia jatorrian baldintza horrekin eratu zenez, zentroen izenean irakurtzera hurbilduko liratekeenak 16 urtetik gorakoak izatea. Bestalde, AEK-rekin aztertuko da ekimena zelan burutu, kalean, arkupeetan,... burutzen bada.

4.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Iñigo Magunagoikoetxea Euskara zinegotziak planteatu du unitate didaktikoa eratu asmoz dabilzala Merkataritza arloan, gazteen artean tokiko merkataritza sustatzeko eta udalerrian bertan erosketak egiteko motibatuzko. DBH 3. Mailatik gorako ikasleen artean lantzeko eta ordu beteko saioa egiteko moduko unitatea litzateke. Eskaera egin die zentroetako ordezkariari zentroan bertan komentatu eta erantzuteko garatzeko aukerarik dagoen.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoenez, amaitutzat jo da batzarra.

Hezkuntza Arloko Zinegotzia,

Euskara Arloko zinegotzia,

Iñaki Gorroño Etxebarrieta

Iñigo Magunagoikoetxea Agirre

Batzordeko Idazkaria,

Bittor Zarrabeitia Bengoa

